

# Bertsolaritza modernoaren bideak

Elkarrizketa

*Dorronsoro:* Bertsolaritza modernoaren historian mugarrizko mementu batzuk seinalatzekotan, 1935, 1960, 1968/1970, 1980, izan litezke horiek. Txapelketen inguruan beti. Puntu mugarrizko horiek aipatzerakoan, eskematxo honi jarraituko diogu: lehenengo egoera sozio-kulturala ikusi. Aldi bakoitzeko gertakari garrantzizkoenak bertso-munduan azpimarratu. Berrikuntzak aipatu, teknikan, organizazioan, etab. Entzulegoa bera nola aldatuz joan den. Mikrofonoaren erabilerak zer esan nahi duen, esate baterako. Hor sartzen dira liburuak, irratiak, hitzaldiak. Eta aro bakoitzeko izen nagusiak aipatuko ditugu, mugarrion erakusgarri bezala.

## I. Gerra aurreko bertsolaritza: 1935

*Dorronsoro:* Gaurko bertsogintza zertan den ulertzera iristea da gure xedea. Hori adierazteko perspektiba historikoa behar dugu.

Oro har, bertsolaritzaren historia guztiak du eraginen bat oraingo bertsolaritzan. Edozeinek ikusten du Xenpelar-ek eragirik baduela oraindik. Bilintx-ek ere handia du. Eta beste askok. Baina bertsolaritza modernoa deritzogunaren abiagune garbi bat aipatzekotan, arrazoi askogatik, 1935eko *Bertsolari Eguna* gerra aurrean aipatu behar. Gaurko perspektibarekin bertso-txapelketa deituko genuke, orduan izen hori ematen ez bazitzaion ere. 1936an berriro egingo da. Inguru horretan dago, beraz, gaurko bertsolaritza modernoaren mugari jakinena. Txirritaren garaia da. Aldakuntza handiak hasten dira. Zer gertatu den ulertzeko, orduko egoera sozio-kulturalaren eta politikoaren deskribapen bat beharko genuke, garapenaren oinarri edo euskarri bezala.

*Lekuona:* Oinarrizkoena, nik uste, txapelketak, gerra ostean, eta nahi bada gerra aurrean ezerezetik ez direla sortu, ulertzea da. Badira hor elementuak, eragin nahikoa zehatza izan dutenak. Horietatik nabarmendu, orain hauek egingo nituzke.

Batetik tradizio zaharra, Txirritaren inguruan. Bertsolaritza entrenigarri hori oso bizirik dago. Agian gehiago kokatzen da herri txikietan, tabernetan, bentetan, etab. Baina usadiozko bertsolaritza hori indartsu dago eta jendeak gogokoa du.

Gero urrats inportanteak ematen dira liburu eta, batez ere, aldizkari aldetik. 1931-1932 bitartean Makazagaren *Bertsolaria* ateratzen da. Makazagak izugarrizko propaganda egiten du. Bertsolaritza asko zabaltzen da. Aita Zavala baino ia 30 urte lehenago da hori. Horrekin batera, bertsolaritzaren inguruan sortzen diren liburuak daude. Fenomeno oso inportantea da hori niretzat. Alegia, Lekuona Zaharraren azterketa teorikoak, eta besteak. Etnologia aldetik eta, batez ere ahozko literaturaren interesa eta azterketak azkartzen dira.

Beraz, bertsolaritza indarrean zegoen eta interesa gora zihoan. Bide jator bat ematea falta zen. Eta hori batez ere Aitzoli zor zaio. Berak aitortzen du, poesia landuaren asmoak porrot egin duela eta, euskara indartzeko, sustraitzeko, beste bide bat hartu behar dela: herriak parte gehiago hartuko duena, etab. Orduan olerki-jaiak organizatzetik bertsogintzaren organizaziora ere etortzen da.

Elementu guzti hauekin sartzten gara 1935era. Eta hor, esandakoez gain, oso inportantea izango da belaunaldi berri baten agertzea. Lehenengo txapelketan, alegia, Basarri aurkezten dela batez ere, eta irabazi gainera. Jendeak susmoa zuen eta barnetik bilatzen

zuen zera hura, pertsona konkretu batengan gauzatua ikusi zuela: Proiektu berriak badu bere gizona, horri dagokio bertsolaritza berritzea, etab. Elementu desberdinen konbergentzia bat ematen da, beraz. Eta, azkenik aipatzeko, agian sozialki inportanteena zera da, proiektu hori EAJ-PNVk hartu eta bere egiten duela. Orduan dena josten da: zein politika kultural egin? Dena bertsolaritzaren berrikuntzaren alde jartzen da.

*Dorronsoro:* Bai, EAJ-PNVren presentzia garbi sumatzen da bertsolaritzaren berrikuntza horretan. Aitzolen eraginaz gain, *Euskaltzaleak* elkarte tartean zebilen, eta EGI. Bi erakundeok Bertsolari Egunaren antolaraen parte hartzen dute eta, gero, epaimahaian ere bai. Aspaldidanik zuten gogoia, baina luzatu egin bide zaie. *Euskaltzaleak* antolatzaile ibili zen: horko lehendakari Monzon zen, hain zuzen; Aitzol, idazkaria. Leizaolak ere parte hartu zuen antolaketan. Eta Zubimendi, EGiko idazkaria, epaimahaian dago, bera izango da idazkari egin zuena. Gero, epaileen artean Olaizola bat ere badago, etab.

*Lekuona:* Hauexek osatu zituzten epaimahaiak: 1935ean egon zirenak, Jose Ariztimuño "Aitzol", Toribio Altzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Joseba Zubimendi eta Txomin Olano. Eta 1936koan, "Aitzol", T. Altzaga, Leizaola, Lekuona eta Olaizola, Basarri gai-emaile arituz.

*Dorronsoro:* Ez da dudarik, hor EAJ-PNVren pentsaera dabilela. Eta bertsolariak oso erne ibiltzen dira, epaileek zer entzun nahi duten, handik aritzeko. Bertsolaritza bildu zuen proiektu kulturala nazionalista zela, garbi zegoen denentzat hasiera-hasieratik: Euskal Herri guztira zabaltzen da, bertsolariak Iparraldetik, Bizkaitik, Nafarroatik ekartzen dira Donostiara. Araban ez dago noski bertsolaririk. Egun horrek Euskal Herri osokoa izan nahi du.

Hau litzateke, bada, egoera sozio-kulturala. Orain, bertsolaritzaren berrikuntza adierazten duten gertakari garrantzitsuenak edo, aipatu beharko genituzke, 35 inguru horretan. Garrantzitsuen txapelketa bera da, noski, 35 eta 36ko Bertsolari Egunak. Baina hori ez da isolamenduan gertatu.

*Lekuona:* Liburuena lehen ere aipatu dut eta nik inportantzia handia ematen diot: Bilintxen bertso-bilduma ateratzen da, Xenpelar-ena, Txirritaren Testamentua... Eta, hori lehentxeago, Aitzolen hitzaurrearekin, Otañoren *Alkar*. Honek merezi du azpimarratzea: horrek ireki bait du bidea, 1932an. Berez 1904ean argitaratu-

tua zen, Buenos Airesen. Baina 32ko berrargitarapenak inpakto handia izan zuen. Basarri eta Uztapideren eskola berria hortik sortu da. Utzi Txirrita, eta beren testu-eredua Otaño izango dute. Hori aldakuntza handia da. Orain hasi den bertsoaritzaz ez da Txirritarena, Otañoren modeloa edo eskola da.

*Dorronsoro:* Txapelketara itzuliz, esan beharra dago, antolakuntza bezala oso gauza sinplea izan zela: hiru edo lau ariketa bakarrik, eta hori bera malizia gutxirekin. Esate baterako, gaita denei eman eta, inongo ordenarik gabe, kantaerazi: eta lehenengo kantatzen duena, eta bederatzigarren egiten duena, gaita bera kantatzen ari dira. Ez da kontu hartzen nolako bentajak dauden lehenengo kantatu ala azkeneko kantatu.

*Lekuona:* Bai, eta jaialdia bera ere, batere jaialdi-egiturarik gabe zegoen antolatuta. Dena izan zen nahikoa sinplea. Gero, Euskaltzaindiak hartzen duenean, hori dena erabat aldatzen da. Batez ere puntuazioa, bertsoa nola baloratu, zeri begiratu behar dion epaimahaiak, etab. (Gaiaren interesarengatik, eta luzeagatik ere, puntu honen informazioa elkarrizketatik atera eta aparte ematen da: ik. "1. eranskina" *Idazk. ob.*).

*Dorronsoro:* Txapelketa horretan bi belaunaldi desberdin oso nabarmen elkartu zaizkigu, esan duzun moduan: Txirrita, Saiburu, etab., itzal handiko herri-bertsolari eginak, tradizionalak, alde batetik. Bestetik, uhin berria, nolabait esateko, batez ere Basarri eta Uztapide. Txirritaren eta Basarriren bertsoaritzaz alderatuz, aipatuko zenuke bertsoari berrion agerpenak zer suposatzen duen?

*Lekuona:* Bi belaunaldiren tenka dago. Tenka horretan bi elementu desberdin kontrajartzen dira. Batetik, pertsonak berak. Txirrita, denok badakigu zein zen Txirrita. Karakterizazioa: 150 kiloko gizon-puska, mutilzaharra, bi makulurekin ibiltzen zen. Tabernaz taberna ibili-zalea, zelebrekerietan. Ogibidez, alfer famakoa, etab. Basarriekin beste gizon-klase bat agertu da bertsoari: gaztea, mutil apaina, gorbatarekin; profesionalki kazetaria, etab.; baina bertso aldetik ere bai. Basarrik beste bertsoaritzaz bat egin nahi du, beste proiektu bat dakar. Nahi bada, egin, Basarriren proiektua eginez-eginez joan da, denborarekin. Baina hasieratik argi dago jokabide berri bat. Gizona aldatzen da eta artea aldatzen da.

*Dorronsoro:* Berria, baita, lehen aldiz erakunde batzuk sartzea da, bertsoaritzaz kanpotik zuzentzen edo, bultzatzen edo... Eta horrela bertsoari ez diren pertsonaia eta eginkizunak sortzen dira

bertso-munduaren baitan: gai-emaile, mahaiko, antolatzaileak, etab.

*Lekuona:* Bai, lehenago, Lore Jokoak, Euskal Jaiak eta horrelakoak antolatzen ziren. Horien jarraipen bat ote den, esango nuke, Bertsolari Egunaren antolaketa. Garbi dago, dena dela, 35ean *Euskaltzaleak*-ek eratzen duela, bertsolariena ez den talde batek.

*Dorronsoro:* Baina lehenengo aldiz bertsolariei bakarrik begira, eta jaialdi osoa bertsoz bakarrik osatuz. Zeren, bestela, edonolako jaietan edo bertsolariek interbenitzea bazegoen lehendik ere, baina bertsogintza beste hainbat gauzaren ondoan egoten zen: idi-dema, etab.

*Lekuona:* Esan beharra dago, bertsozalerik ere, oraingo moduan, orduan ez zegoela oraindik. Gaurko erako bertsozalea gero egiten da. Txapelketen inguruan jendeak berak ikasi egin du: eztabaidak egoten dira, publikazioak, kantatu dena gero irakurri egiten da, etab. Jendea jantzi egin da. 35ean entzulegoa joera zaharrekoa zen oraindik.

*Dorronsoro:* Izenik edo protagonistarik aipatzekotan, zalantza gabe, Txirrita eta Basarri. Baina mereziko luke gogoratzea Mattin Senperetarra, txapelketan bigarren geratu zena 35ean eta 36an azaltzerik izan ez zuena, tartean hil egin zelako. Baina oso bertsolari fina izan behar zuen.

*Lekuona:* Baina Senpereko Mattinekin, gero Xalbador-ekin gertatu zena gertatu zen pixka bat: iparraldeko bertsolariak entzunez, jendeak zirrara bat eraman zuela, ongi ulertzen ez bazuen ere: musika finagoa, irudietan koplak zaharren antz handiagoa. Mattin Senperekoak esaten zuena: hemengo bertsolariak bertsoa egiten hasieratik hasten dira; guk, aldiz, hasieran irudia jartzen dugu eta gero bertsoa egiten dugu, urrutitik hasten gara eta bukatu egiten dugu bertsoan. Kontraste-modu hori badago: arrazoi gutxiago, irudimen gehiago, koplak zaharren bidetik.

*Dorronsoro:* Alde positiboak eta negatiboak ikustera pasako gara. Egin ahal liteke balorazio bat, hor hartu zen bidez, eragin handikoa izan bait da gerora. Orain bertso bide hari jarraitzen gabilta.

*Lekuona:* Teknika aldetik, positiboak dira, nik uste, lehenengo, antolabideak berak, organizazio bat sortzea. Gero, Basarri batek, Txirritaren aldean, zerbait berria suposatzen du: kultura, gaia emateko modua, erabiltzen dituzten gaietan bertan alde handia

dago. Bertsoa egiteko posturan ere bai. Euskara, adibidez, Txirritak eta, mordoiloa esaten zena erabiliko zizuten; berriak Otañoren modeloan datoz. Saioak ere harez gero laburragoak egiten dira. Usadiozko bertso-saio molde zaharra luzea izaten zen eta klimax baten bila joaten zen. Ez zen begiratzen 10 ala 20 bertso bota behar al ziren. Bota botatzekoak eta segi. Orain saioak laburragoak egiten dira eta landuagoak ateratzen dira. Oro har, uste dut positiboa dela orduan hartu zen bidea.

Negatiboa, beharbada, ba, ironiaren problema hori: ironia gozoagoari Uztapidek eta Lasartek eutsiko diote oraindik; Basarri eta, serioagoak izan dira, horiek ironia apalagoa dute. Ironia garratza ia galdu egin da. Galdu edo, baita, bertsolaritza komikoa ere, umoretsu entretenigarri hura. Nahiz eta ofizioetan, esate baterako, oso onak izan bai Basarri eta bai Uztapide, eztabaidari dago-kionez.

*Dorronsoro:* Umorea edo txispa galtze horretaz. Txapelketa Basarrik irabazi zuen, irabazi. Baina txapelketa hartatik jendeak oraindik gogoan daukan ia bertso bakarra Txirritaren harako hura da:

Larogei urte gainean ditut  
nago hanketako miñez  
Donostiara etorria naiz  
herren haundia egiñez  
bi bastoiekin txit larri nabil  
pausorik eman eziñez  
euskera ia aztu zait eta  
erderarikan jakin ez  
maixu batekin eskolan laister  
hasi behar det latinez.

Beti ere Txirritaren tiroak txispa ateratzen zuen.

*Lekuona:* Baliabide-kontua ere badago. Txirrita beti uste ez zen edozein aldetatik ateratzen zen. Gaia euskara zen. Bertsolariak, euskara gora, euskara behera. Txirritak ez zuen gaia seriotan hartu. Hau da, eman zioten gaia hartu bai, baina komentario komiko batekin ateratzeko, zelebrekeria batekin. Mementu hartan, egun hartako giroan, euskararen aldeko arrazoia ziren nagusi. Txirritak zelebrekeriara jo zuen: laurogei urte, herren haundia, eta maisu batekin latinez hasiko zela, euskara ahaztua eta erdara ikasi gabea zituenez. Eta maisu hori Aitzol izango zen, "maisua bat" esatean behatzaz berau seinalatzen zuenez. Algara zaratatsuaren bila, noski.

*Dorronsoro:* Arras bestelakoa Basarriren hasierako bertsoa:

Uso zuri bat inguratu zait  
goizean egun argitzez  
alaitasuna hartzek sortu dit  
jaun maiteak, bere hitzez  
eta ni orain zuen aurrean  
nauzute pozaren pozez  
lendabiziko, entzule onak,  
agur danori bihotzez.

*Lekuona:* Horixe: 21 urteko mutil gaztea, dotorea, gorbataz jantzia, eta hasiera horrekin, literatura erromantikoan jantzia agertuz, sentsazioa egin behar zuen.

*Dorronsoro:* Epaimahaikoek maite zutena Basarriren modua zen. Esan dugu EAJ-PNVko jendea zela.

*Lekuona:* Txiritaren umorea, herriko jendeak oso maite zuen, baina donostiar jende dotoreagoak ez zuen hain gogoko umore-modu hori, eta nik uste dut maila baxuagokoa jotzen zuela. Politikara etorritz, lehen ez dugu aipatu, eta aipatu beharra zegoen Enbeita Urretxindorra, mitinetan ibiltzen zen bertsolaria. Ez da ahaztu behar Basarrik eredu horri ere jarraitu nahi izan ziola, eta ibili ere egin zela harekin mitinetan. Eta gero, bertsolaritzak soziazialki halako leku pribilegiatua irabazi badu, ezagutu egin delako, da, bertsolaritza indar handia dela.

*Dorronsoro:* Bertso-kantaldi tradizionalen luzea eta saio berrien laburtasuna aipatu duzu. Beharbada esan daiteke, bertsoa geldiroago kantatzen ere handik hasi zela, astiroago, pentsatuago. Hori gaur gehiago nabarmentzen da, baina bertsolari tradizionaletatik Basarriren bertsogintzara ere sumatzen da. Intelektualagoa, logikoagoa, hobeto betea, egokiago konposatua..., baina astiroago eta patxada gehiagoz osatzen da bertsoa.

*Lekuona:* Arrazoia, beharbada, begizko memoria indartu dela eta entzunezko memoria ahuldu. Begizkoa zehatzagoa da, baina askotan entzumenezkoa azkarragoa: bestelako konexioak sortzen ditu. Gero, baita, hurbilketa bat hasi da literatura idatziari. Positiboa, negatiboa? Nola ikusten den, izango da. Baina besterik ezinezkoa zen hori: Basarri eta horiek, egunero irakurtzen eta idazten duen jendea baziren, nahitaez horiek idatziaren eragina zekarten, bertso ez-logikoago zahar hura ez zuten maite. Eta hori gero konstante bilakatu da, gaur arte, gero eta indartsuago. Gaurko

bertsolari-estiloa hurbilago dagoela dirudi bertso idatzitik, joan den mendekoena baino.

*Dorronsoro:* Historiaren hariari jarraituz, gerra ostera etorriko gara.

## II. Gerra ondoko txikizioa eta berrastapenak

*Dorronsoro:* Gerrak txikizioa dakar, bere ondorio guztiekin. Bertsolariak ihesi joan dira, edo espetxean daude, desterruan. Entzulerik ere, egoera hartan, ezin egon. Urte batzuetan behintzat zeharo ezkutatzen da bertsoegintza guztia alde honetatik, bai bapatekoa, bai idatzia.

Baina txarra ere ez da dena. Alabeharrez, beti gertatzen den eran, Euskal Herriaren egoera eta sasi-muga hori tartean dela, askok beste aldera joan behar izan du eta han bertsoegintza bizteko aukera dator. Hernandorena han dabil. Baita Monzon ere. Basarri ere bai, gerra ondorengo hiru urtetan behintzat. Errexil bertsolariak ere, hor mugan goardian dagoela, pentsatzen du "bueno, nik joan egin behar diat hemendik" eta hanka egiten du bere mitrailleta eta guzti Francoren zeretik beste aldera. Bertsolari bat gehiago Iparraldean. Hernandorenak bultzatuta, xaxatuta, lehenengo txapelketak 44/45 urteetan hasi dira, Donibane Lohitzunen. Han agertzen dira Xalbador eta Mattin, eta hemendik ihesi joandakoak, Zubikoa eta. Hernandorenak bildu ditu horiek denak.

*Lekuona:* Hegoaldean poliki-polikiago joan behar izan da. Txapelketaren oroitzapena badago herrian. Eta gogoia ere bai, "noizbait iritsiko bagina horrelakorik berriro egin ahal izatera" eta; sua badago azpian. Egin ere, zenbait txapelketa-antzeko saio egin ziren. Tolosan behintzat badakit, 46 aldean. Gero hementxe Gros-en egin zuten zerbait, 47/48an, bertsolari gazteentzat. Eta 50ean Falage-ak berak antolatu zituen San Tomas ferietako lehiaketak. Salbatore Mitxelena eta hor ateratzen dira, poesi sariketekin batera egin bait ziren bertsoenak. Gero Perla-n bertsolari gazteen txapelketa bat ere egin zen. *Arantzazu* aldizkariak bertsoak publikatzen ditu, eta Arozamena eta, bertsolarien argazkiak, etab. Beraz, 52 inguruan berriro mugimendu bat hasia dagoela hemen ere, esan genezake.

*Dorronsoro:* Ordurako Iparraldea dexente aurretik zebilen. 49-50-51 urteetan ia Hernandorenak Euskal Herri osorako sarike-



ta berezia prestatzen du han. Hiru urtetan segidan, nork jaso txapela, jokatu zuten: Basarrik irabazi zuen eta Xalbador bigarren.

*Lekuona:* Hegoaldean, besterik ezinaren poderioan, Basarrik eta herriz herri egiten duten lan izugarria dago batez ere berrogei-tamarkada horretan. Hau da, lehen esan den moduan, nahiz eta zerbaitek lehenengotik kaltetarako bakarrik dela eman, eta politikoek horixe bakarrik nahi, luzarora, lana eginez, ondorio onak ekartzen ditu. Eta nik uste hori dela Basarrik eta Uztapidek herriz herri egin duten lanak ekarri duena. Bizkaian ere badabiltza, Enbeita, Iturri, agian besteren batzuk. Gutxi batzuk; egon ere, dirurik ez bait dago, bertsolari gehiago ibili ahal izateko eta ordaintzeko. Baina urtero urtero herriz herri, bertsozaletasuna zabaltzen ari dira. Beraz, 60an txapelketa etortzen denerako, lan bat eginga dago azpitik. Ibilian ibilian horiek egin dutena, katekista-lan izugarria izan da bertsolaritzarako. Jendea ikasiz joan da zer den bertsolaritza.

Beharbada hemen gehitu behar da, urte horietan bertsolaritza sinbolo bihurtzen dela, frankismoan alegia. Han euskaraz egiten da, euskal pentsamendu eta sentimendu bat bizitzen da, hemengo herri izateari eutsi nahi zaio. Baina hori gehiago indartuko da gero.

*Dorronsoro:* Noski, Basarri eta Uztapide izan dira lan gehiena egin zutenak. Baina izen batzuk gehiago luzatuz, Bizkaia aparte, gutxiago ezagutzen dudalako, Gipuzkoan bederen bertsolari gazteak ere badatoz horien atzetik: Joxe Lizaso, Lasarte, Mitxelena, Lazkao Txiki eta, herriz herri lagun egiten hasten direnak eta txapelketan ere tartean ibiliko direnak. Txapelketa, hemengoa, 60an izan da, Donostian hau ere. Donostia, gauza hauetan, sekula diskutitu ez den lekua izan da. Txapelketak beti Donostian jokatu izan dira. Arrazoi askogatik, bertsozale asko dagoelako inguru honetan, etab. Hori izango genuke, beraz, bigarren mugarria. Eta txapelketak bere aurreko urtean kanporaketak dakartza, herrialdez herrialde. Batez ere Bizkaian eta Nafarroan. Horrekin bigarren puntura heldu gara, 60ra, eta horri heldu beharko diogu.

### III. Plaza-bertsolaritzaren gora berria

*Lekuona:* 60an aurkitzen dugun egoera sozio-kulturala zerbait bestelakoa da jadanik. Zentsura eta errepresio-giroa zerbait lasaitu

da. Adibidez, 49an Salvatore Mitxelenaren poema argitaratzen da, 50ean Orixerena, gerraosteko literaturaren berrastapenak. Poliki-poliki gero literaturak bere martxa eraman du. Beraz, pixka bat bigundu egin da euskal kulturaren zapalkuntza eta horrela ulertzen da zergatik Gobernadoreak onartzen duen bertso-txapelketa bat berriro antolatzea.

Bigarren lekuan, Euskaltzaindiak hartzen du txapelketaren antolakuntza. Zergatik? Entitate hori nolabait txapela bat bezala zelako, buru denak estaltzen zituena, hemengo zenbait ekinbide alegia, bai hizkuntz arloan, literaturan, etab. Itzal bat bazuen, onarpena zuen guztien aldetik, eta horregatik hartu zuen bere eskuetan batez ere. Berak bakarrik egin zezakeen. Eta horrekin aldakuntza garrantzizko bat nabarituko da: Euskaltzaindiak antolatu duen txapelketa hori gerra aurrekoak baino askoz ere zehatzago egiten da.

*Dorronsoro:* Aurretik kanporaketak egin ziren. Bizkaian eta Nafarroan nahikoa xuxen jokatu zuten, Gipuzkoan gutxiago. Gipuzkoan, Basarri eta Uztapide hor zeuden, besteren batzuk ere bai, itzal handikoak, bertsolari askoz gehiago ere bazezilen, etab. Eratu izan dira hemen ere kanporaketak, baina ez da beste herrialdeetan bezala funtzionatu.

*Lekuona:* Hasiera batean pelota-txapelketako eskema hartu zen. Alegia, lehengo txapeldunak azkeneko saioan bakarrik jokatzea. 60ko txapelketan Basarrik azkeneko saio bakarra egin zuen. Egon zen egun osoan zain, ea nor ateratzen zen harekin jokatzeko, eta azkena bakarrik jokatu zuen Uztapiderekin. 62an Basarrik berak eskatzen du egun guztian ihardutea. Ez dela ona hotz-hotzean eta bapatean azkena jokatzea. 62an, txapela galdu zuenean hain zuzen, Basarri goizetik hasia zen kantatzen.

*Dorronsoro:* Hautaketetara etorri. Iparraldetik ere bikote nahikoa segurua dator beti, ez zen egiten kanporaketarik. Euskaltzaindiak dei egiten zuenean txapelketara, Mattin eta Xalbadori dei egiten zien, ez zitzaion inori burutik pasatzen besterik egitea. Nafarroatik, Lasartek ez zuen nahi izaten eta hautatzen zen bikotea bigarren mailakoa edo izaten zen. Kejak ere beti egon dira, gipuzkoar gehiago edo gehiegi omen zegoelako, etab. Problema beti egon dira; eta gaur ere badaude oraindik, lurralde bakoitzak duen bertsolarien maila eta ugaritasuna Txapelketa Nazionaletan nola ordezkatu egoki, erabakitzeko orduan.

Baina egoera sozio-kultural orokorrari heldu beharko genioke aurrenik. Alegia, bitartean ETA sortu da, ikastolen mugimendua hasten edo dabil. Joanes XXIII.aren eta Kontzilioaren garaia da, Elizan batez ere aldakuntza handiak nabari dira, horrek asko esan nahi du frankismoan eta Euskal Herrian ere, Kennedy, Khruschev, etab., egoera optimista bat dago, indarberritu nahi bat, eta hor sartzan da lehenengo txapelketa honetako giroa. Bestalde 35etik zetorren uhin berri hura orduantxe dago sasoi bete-betean, berrogei urte inguruan, onenean daude eta hamarkada honetan bultzada izugarria emango diote bertsolaritziari, 60tik hasita.

*Lekuona:* Oso bertsolari trebeak elkartu dira hor. 60tik 68ra plazako bertsolaritza gailurra eman dela esango genuke. Urre Aro antzeko bat. Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador, Lazkao Txiki, Lasarte, azpeitiarrak ere bai, saila dago eta jende oso ona dago. Azpillaga gaztea, Basarri eta Uztapideren ondoren hirugarren egingo duena 62ko txapelketan, Lopategi ere badator, Mitxelena, Garmendia —gero igoko zen gehiago hori—, asko eta oso onak; bapatean ez dago denak esaterik.

*Dorronsoro:* Txapelketen inguruko publikazioen inportantzia aipatu dugu lehen. Teorizazioa, dibulgazioa, txapelketei lagun egiten.

*Lekuona:* Hemen ere badago. *Auspoa* 61ean hasi da, Zavalak *Bosquejo de historia del bersolarismo* ematen du 64ean, urte berean Onaindiak *Gure bertsolariak*, etab.

*Dorronsoro:* Mikrofonoa ere jadanik sartu da, bertsoingintza asko aldatu duen bitartekoa.

*Lekuona:* Esan izan da, bestela eztarria behar bait zen, Lazkao Txiki bat, adibidez, mikrofono gabe ez zela egingo egin den bertsolaria, eta horrelakoak. Eta agian mikroak izango ditu beste alderdi batzuk: ez ditugu aztertu, baina ahots handian kantatu beharrean, xuabe egin ahal izanez, agian inprobisazioan bertan bazu zerikusirik, lirika egiteko ahalbideren batzuk beharbada ematen ditu, eta horrela. Jakina, lirikarakoa Xalbador-ek asko eragin duen joera izan da. Dena dela, orain, gauza hauek, 60ko txapelketa esaten dugunean, 60tik 68rako epea batean hartu behar da. Aldi horretan inportantea izan da Iparraldeko bi mezularien ekarria, hemengo bertsolaritziari berari eragiteko. Mattinek zekarren giroa ere, xaribarien gatza eta biperra, esaterako. Bertsozale tradizionalari Mattin batek eta bera bezalakoek eutsi diote, parateatrotik hurbil.

Teknikan sartzen bagara orain, lehen ere esan dut, txapelketa hauetan hasieratik ikusi zena, gauzak gero eta zehatzago egiten direla. Euskaltzaindiak gaiak denentzat berdintsu jartzen ditu; gainera, zotz egiten dira gaiak, bakoitzak bere gaia izango du; ahal den kondizio berdinenetan egingo dute denek saioa. Hor abiatzen da, adibidez, gartzelako edo banakako saio hori: gai bera, baina batuk besteari entzun gabe, kantatzea. Bordarik asmatu zuen hori eta Euskaltzaindiak sartu.

Musika aldetik, zuk hobeto esango duzu hori. Gaiak ugaritu eta zabaldu ere egin dira. Gero, kondizioekin berekin, bertsolaritza bera aldatzen da. Goizekoan eta bazkalondoko saioan ez dira gauzak berdin egiten. Konposizio aldetik ere, lehenengo bertsoan zer esan, bigarrenengan, hirugarrengan, ikusten da bertsolariak asko begiratzen duela. Lopategi, Xalbador eta Lazkao Txikiren influentziari zor zaio hori seguruenik. Hau da, konposizioaren estilistika bat nabarmentzen zaie. Hau aldakuntza inportantea da bertsoaren lanketan.

Balorazio-sisteman ez zen gehiegi aldatu. Esaten zen, bakoitzak notak eramateko, baina denok ez genuen sistema bera erabiltzen, ez dut uste askok egiten genituenik ere notak. Gainera 60an oraindik bi epaimahai bezala zeuden. Hori ez dakit nondik arraio sortua izango zen. Bat zen Euskaltzaindiko ohoratuen edo, ez dakit, beharbada herri-literaturarekin zuzeneko erlazio gutxiago zutenena; bestea, herrikoia edo, bertsozalez osatua, bertsolaritza-ren testigu edo bezala ginenona. Bi izaten ziren behintzat. Herri-tribunalekook, nolabait esateko, gure eritzia ematen genion Euskaltzaindiko beste epaimahaiari, eta, pixka bat denon artean hizketatuta beraz, hark ematen zuen erabakia Euskaltzaindiaren izenean. Azken hitza epaimahai horrek izaten zuen. Hori horrela, nolana ere, 60an bakarrik egin zen. 62an dagoeneko ez, epaimahai bakarrarekin hasi zen orduan.

*Dorronsoro:* Jakingarria litzateke epaimahai bakoitzeko enize-nak ezagutzea.

*Lekuona:* Bai, 60ko txapelketako epaimahai horiek honela osatu ziren: Euskaltzaindiaren izeneko epaimahaian zeuden Mitxel Labegerie, Aingeru Irigarai, Antonio Arrue, Luis Mitxelena, Antonio Zavala eta Bordari; bigarren beste mahaietan Antonio Pagona, Migel Goitia, Pedro Diez de Ulzurrun, Marzelo Andrinua eta ni neu. Alfontso Irigoien zen gai-emailea.

*Dorronsoro:* Eta entzulegoari begira zer? Esan nahi dut, 35eko txapelketa Euzko Gaztediaren "Poxpolin" izeneko aretoan egin zen, eta 36koa "Victoria Eugenia"n.

*Lekuona:* Galdera polita. 60koa Victoria Eugenian egin zen. 62koa Astorian. Garbi zegoen alferrik zela, horietan ez zegoen lekurik. Jende-pila geratzen zen kanpoan, egunak aurretik sarrera bat lortzeko eromena izaten zen. Orduan hurrengo txapelketa Anoetara eramán behar izan zen, 65koa. Hortik, publiko gehiago ezezik, beste giro bat hartu du jaialdiak. Gainera, publikoak berak gehiago ententitzen du bertsoa eta gehiago partizipatzen du nola-bait. Badira hor, 67an eztabaida batzuk Xalbador-engatik. Onartu onartu, hemengo publikoak, Xalbador, 67ko txapelketaren ondoren onartu du, 67an txistu franko jo eta gero.

*Dorronsoro:* 60tik aurrera txapelketa oso-osoak jaso ahal izan dira magnetofonoen bitartez. 35ekotik ia ezer ezin jaso izan zen; 36kotik dexente, baina gutxi fidatzeko moduan...

*Lekuona:* Ba al dakizu nola egin zuten 36koa jasotze hori? Elkartu ziren taldetxo bat, bakoitzak bertso bana kopiatzen zuten, eta gero bata bestearen ondoren josi. Baina bakoitzat bakarra hartuz, edo ez zutela eskuz ondo idatzi, edo ez ondo ulertu, dena dela, akats askorekin atera zen. Eta ez dena.

*Dorronsoro:* 60koa lehenengo aldiz osorik jasotzen da eta liburu batean argitaratu. Horrela bertsozaleak esperientzia berri bat egiten du: entzun duena irakurri eta berriro epaitu. Interes handia sortu zuen. Edizio piratak eta, egon ziren.

Beste berritasun bat, ordea, irratiena izan da. Bertso-saioak irratiz ematen dira eta bertso-tradiziorik ez duten herrietan ere, Arrasaten edo Eibarren, bertsozaleak sortzen dira horrela. Loiola Irratiak txapelketa bat ere antolatu zuen urtero, hasi 63an eta 72a arte. Irrati-kontuan ere Basarriren katekesia, periodikoan egiten zuenarekin batera, inportantea izan da.

Lehen musikarena airean utzi dugu. Bertso-doinuei buruz liburuek ez digute inongo informaziorik ematen, 1967. urteko txapelketa arte. Hala ere, labur-labur, doinu aldetik abanikoa asko zabaldu dela, esango dut bakarrik. Bertsolariek doinu desberdinak erabiltzen dituzte eta dominio gehiago erakusten dute neurri desberdinetako bertsoetan airoso agertzeko. 35eko txapelketan bi edo hiru doinutan dago dena, ez dago besterik: zortziko txikiko doinu bat, "Sastarretik hasita" deritzona; zortziko haundiko bat: "Ari

naizela” izenekoa; eta beste bat, hamarreko haundikoa, “Mutil koxkor bat”. Orain hainbat neurritan eta doinutan aritzen dira kantari. 67ko txapelketako azken saioan 20 doinu desberdin erabili zituzten.

*Lekuona:* Ugaritzea eta dibertsifikatzea, aberastea, edozertan sumatzen da, bertsolarien ibileretan eta presentzian ere kalean. Lehen Basarri eta Uztapide, eta besteren bat, ibiltzen baziren herriz herri, txapelketak, su bat edo tentsio bat sortzen duelako edo, giro bat, arrakasta izaten du jendearen artean eta herrietatik eskabideak ugaritu egiten dira. Orduan, bada, bertsolariak, ez herriz herri bakarrik eta urteko egun jakinetan, baina jaialdietan, soziedadeetan, afarietan, edonon dabilta; bertsolaritza ikaragarri zabaltzen da, 67tik aurrera batez ere, eta jaialdi asko egin da garai horretan. Jaialdian, ordea, espektakuluaren baldintzetan kantatzen da, ez konkurso-baldintzetan eta orduan musikaren ugaritasunak eta, ikus- edo entzungarritasunak desarroilo bat berez bezala dute.

*Dorronsoro:* Jaialdi inportante samarrik ez da egingo, gainera, Iparraldeko biak gabe, Bizkaitik ere bat do bi ekarri gabe. Azpillaga gelditu gabe ibili da. Bertsolariek elkarri ikusi eta ikasi egiten diote, elkarren artean festa bat muntatzen dute.

*Lekuona:* Inportantea, baita, zein isiltzen den ere: Basarri, 62tik aurrera zirkuitutik atera egiten da, isilik geratzen da. Lehena-go Zepai bezala; Tolosako lehen esan dugun txapelketa-moduko hartan, orduko agintari gorenari buruz kantarazi eta, gero ez da urteetan azalduko. Geroago, borroka armatua indartzen denetik batez ere, herriak horixe eskatzen zuelako, edo bertsolariek horrelaxe sentitzen zutelako, bertsolaritza politizatu egiten da. Azpillagak eta Lopategik bertsolaritza sozialetik asko egin dute. Kontutan izan behar da, salbuespen-egoerak eta zigorrak ugaritzen hasi direla. Giroa zaila dago. Orduan, Uztapide, Lasarte, ez dira gustora sentitzen mundu horretan, edo ez zitzaien hori jaiotzen, pixka bat gaizki pasa zuten nolana ere. Baina prozesu hori txapelketatik kanpo gertatu da.

*Dorronsoro:* Aurrera baino lehen, 60ko hamarkada honetan aipatzekoa izango litzateke bertso-paperen arloa ere, Euskaltzaindiaren “Xenpelar Saria”. Bertso-papera ere indartu egin bait da garai honetan.

*Lekuona:* Bertso-paperak beti inportantzia izan du bertsolaritzaren eboluzioan eta garapidean. Gerra ondoan galerazia egon zen, baina, giroa lasaitutakoan, bertso-jartzailleak hasi ziren beren

bertsoak aldizkarietan argitaratzen. Orduan Euskaltzaindiak urtero Xenpelar Saria jarri zuen 62tik aurrera. Xalbador izango da Xenpelar Saririk gehien irabazi duena. Eta irabazlerik gehienak, Xalbador eta Lazkano salbu behintzat, ez dira plazako bertsolariak izango. (Irabazlen eta beren gaien zerrenda aparte ematen da: ik. "2. eranskina". *Idazk. ob.*).

Bertso-paperekin batera liburuak aipa genitzake, *Auspoa*-ren edizio bereziak, gerroxegokoak badira ere. Uztapidek bere bizitza idazteak, etab., esan nahi du, bertsolaritza prosagintzaraino heldu den honetan —gogora Lasarterena, Xalbador-ena—, belaunaldi honek bere goena jo duela. Proiektua bete du. Eta inguru honetan Uztapide ere isildu egiten da, lehen Basarri bezala.

*Dorronsoro*: Edozein moduz ere, gogor samar esanda, 67/68 aldera, beranduenik *Auspoa*-ko liburu horiekin, gizaldi hau behe-raka sartzen da. Uztapide, Mattin, Xalbador bera laster. Emateko hoberenak eman balituzte bezala, *Auspoa*-ko liburu horiek testamentu antzera ikus genitzake, bai Uztapiderena, bai Xalbador-ena. Jarraiko urteetan ikusten duguna, belaunaldi berri baten erreibua da, oro har.

#### IV. Krisi eta zigor artean gora

*Dorronsoro*: 60ko aldi hau, hots, gerra ostean zerotik hasi, poliki-poliki abiada hartu, 60an gorputza hartuta agertzen dena, 80raino jarraitasunean iristen da, kanbio handirik gabe, bertsolaritzaren beraren tamainan behintzat. Baina 60tik 80ra izan du gorabeherarik bertsolaritzak, batzuk larri samarrak.

*Lekuona*: Bai, 67an txapelketak moztu egin dira.

*Dorronsoro*: Zergatik?

*Lekuona*: Esan egin behar al da? Bueno, 67ko txapelketan, Xalbador zela eta ez zela, Xalbador finalera pasa zuelako hain zuzen, edo hegoaldekoren bat pasa ez zuelako, izenak hobe izango da alde bat uztea, dena dela publikoak sekulako txistualdia jo zion epaimahaiari. Mingarria izan zen.

*Dorronsoro*: Gero 68an "Onena" pentsu-etxeak bere aldetik Sariketa handi bat antolatu zuen, hogeit mila duro sari eskainiz,

gainera. Eta bertsolari guzti-guztiak presentatu ziren hor, txapelketara joaten zirenak eta ez zirenak, erretiratuta zeudenak, punta-koak behintzat denak. Eta hor aldakuntza nabarmenak datoz. Lehenengo, ez direla gutxi batzuk bakarrik presentatzen, kanporaketaren ondoren bezala. Baina, batez ere, mahaikoen aldetik, puntuazio aldetik —lehenengo aldiz orduan ematen da puntuazioa agerian—, eta hor bukatzen dira txapelketak, nahikoa eskandalu-rekin. Hamabi urteko etena dator txapelketetan.

*Lekuona:* Nik epaimahaiaren alderdia aipa nezake, hor egon den aldaketa. 67ko txistualdiarekin, epaimahaia nahikoa erreta geratu zen. Herria konturatu zen Xalbador bertsolari aparta zela eta saiatu zen eskuratzen, oso ongi saiatu. Inor baino maitatuagoa izan da gero Xalbador hemen. Erreta, Juradua gelditu zen. Bestetik, pixka bat nekatua ere bazegoen, ikusten zuelako herrian edo bazegoela deskontentu-modu bat. Eta, guztiaren gainetik datorrena, esan duzun 68koa. 68koan ez da Euskaltzaindiaren epaimahaia aintzakotzat hartu. Esaten dizute: mahaikoek gutxiago izan behar dute; bertsolaritza hurbil-hurbildik ezagutzen dutenak izan behar dute, etab. Jakina, egongo zen beste pentsamenduren bat ere azpiti. Taka, bada, hartu zuten idazkari bat, Joan San Martin, eta herrialde bakoitzeko ordezkari bat: Nafarroatik, Satrustegi; Bizkaitik, Amuriza; Iparraldetik, Mixel Itzaina; Gipuzkoatik neu egon nintzen. Hori izan zen epaimahaia. Urte askotan lan egindako Euskaltzaindiaren epaimahaia oro har bazterrera geratu zen horrela, eta nolabait desautorizatu bezala. Horrek denak, uste dut, Euskaltzaindiaren barruan ezinegon bat sortu zuen. Gauzak horrela, ez dut uste Euskaltzaindiaren epaimahaiarekin justizia egin zenik. Beti egon da Juraduaren kontestazioren bat, eta azkeneko gorabehera hauetantxe ere ikusi da: berrikuntzarik handiena epaimahaiaren berrikuntza izan da. Ez da erraza hor zuzen asmatzea.

*Dorronsoro:* Txapelketarik egon ez den denboraldi horretan —jaialdiak, ordea, asko egon dira— esan dugun Azpillaga eta Lopategiren bertsogintza soziala desarroilatu da. Bueno, ez horiena bakarrik. Herriz herri dabilzan guztiena. “Onena”ren Sariketaren ondoren hilabete-pare batera gertatzen da Etxebarrietaren hilketa, ondoren etorri den guztiarekin. Giroa oso bestelakoa da. Gaien aldetik egundoko aldakuntza dator, ezta?, eta gaien trataeran ere bai. Nolabait, bertsogintzari oso ondo datorkio, gehiegikeriak aparte, kontrabandoko mezu bat transmititzen aritzea. Edozein gai jartzen zitzaie, bertsolariek aterako zioten puntta politikoa



nonbaitetik, bigarren sentidu bat azpitik. Garaiak ere halakoxeak ziren eta gai-jartzaileak ere ezkutuka emango dio gaia. "Sardina zaharra"ri kanta diezaion agintzen baldin badio, adibidez, bertsolariak laster helduko dio bigarren zentzuan, "ea noiz diseekatzen dituzten beste sardina horiek" kantatuz. Horrela grazia bat desarroilatzen da, malizia bat, bertsolaritza zaharrak oso berea zuena. Horrek entzulego berria sorterazten du: Francoren aurka dagoena, gazteria politizatuagoa, berak esan ezin duena eta sentitzen duena bertsolariak esatea espero duena, etab. Publikoak eta bertsolariak bat-bat eginda ikusten dituzte bere buruak, elkarren konplize moduan. Honela helduko ginateke 80ko arora. Hernandorenak elkartuta Donibanen kantatu zutenen aroa, esan genezake, itxi egiten da. Berri bat ireki.

## V. 1980ko gailur berria

*Dorronsoro:* 80koan aldakuntza nabarmenak ematen dira globalki: frankismoaren bukaera, Erreforma izenekoa, Alderdi politikoak.

*Lekuona:* Horregatik bertsolaritza sozialaren arazoa 80an espreski birplanteatzen da. Bertsolariak berek egian dute. Alegia, posible al den, komeni ote den, hortik jarraitzea. Hitz egiteko eta mitinak egiteko aukera orain badago eta bertsolariak lehengo moduan jarraitu behar al duen ala tradiziozko gai zabalak tratatu.

*Dorronsoro:* Berrikuntza teknikoetan, lehen irratia bezala, orain bideoa sartzen da. 80ko txapelketa bideoan jaso da. Liburu-gintzan eta teorizazioan aurrerapauso handiak eman dira. Amurizaren *Hiztegi errimatua* eta *Hitzaren kirol nazionala*, nere *Bertsotan* izeneko liburua, 1981. urtean argitaratzen dira; eta 1982. urtean, berriz, Amurizaren *Zu ere bertsolari*, Joan Mariren *Ahozko enskal literatura* eta nere *Bertsotan gidaliburua*. Berritasunik ohargarriena, halere, bertsolari-eskolak dira zalantza gabe, eta bertsolaritza eskolan sartu nahizko bideak eta azpiegitura sortzea: testugintza, haurren txapelketatxoak, liberatuak, etab.

*Lekuona:* Honekin bertsolaria jaio ala egin egiten den, planteatu da.

*Dorronsoro:* Berrikuntza guztietan gertatzen da, datozenean, planteamenduak zeharo garbi egin gabe etortzen dira, eta hasieran *shock* bat bezala eragiten dutela. Joera batean bertsolaritza zerbeit mitiko samarra bezala zegoen hartuta. Berezkoa, Jainkoak emandako dohain ezkutua, etab., lilura bat duena, misteriozkoa denez. Beste joera batek hor misteriorik ez dagoela, esango du; bertsolaritzak teknika batzuk ditu, txikitatik hasiz gero ikas litezke, beste edozer gauza ikasten den moduan. Hori dela eta, hain zuzen, bertsolaritzaren oinarritzko kontzeptuak argitu beharra etorri da, eta ari dira argitzen. Zer den zehatz-mehatz puntua, oina, edo zortziko txikia. Hiztegi bat ere ez zegoen egina, terminoak berak finkatzeko. Eskolan sartuko bada, ordea, teorizazio bat egin beharra dago, eta egiten ari gara.

*Lekuona:* Gero dibulgazio mailan txapelketa honen inguruan ere dexente egin da. Horretan aritu diren etatik bi behintzat hementxe gaude eta beste asko ibili da prentsan, irrastian, telebistan, liburugintzan. Konstantea da txapelketen inguruan dibulgazio-mugimendu bat sortzea. Berdin, berriz ere bertsolaritzaren dibertsifikazio eta ugaritze bat ikusten da: 80an eskolarreko haur-txapelketak hasi dira; gazteenak lehenagotik datoz, 62an egin zen bat Loiolan, eta lehenagoko luistarrenak eta gerra ondorenean, aspal-dikoak dira horiek, baina 70etik aurrera finkatu dira. Gero, neska bertsolarien interesa bizten da, etab.

*Dorronsoro:* Belaunaldi berri bat ere agertzen da gailentzen. Aldian aldian, gizaldiek aurrera segitzen dute, olatu baten atzetik bestea etortzen da, eta izenak ere berri-berriak datoz. Amuriza lehendik baldin bazetorren ere, eta lehengo batzuek segitzen badute ere, hor datoz Lizaso eta bere sasoiko olatu berria indarrean.

*Lekuona:* Berritasun nagusia, denok ados izango gara horretan, Amuriza da. Amuriza plazan lehendik dabil, eta 80an etortzen da, beste batzuk ez dira etorri, eta txapeldun atera da. Amurizarekin bapateko bertsogintzak zeharo beste maila bat erakutsi du. Han ikusi zen zer handitasunezko artea zerabilen bertsoan. Denean, gainera: musika berriak, gai biribilki emanak, hizkuntza landua euskara batuan, etab. Berrikuntza handia. Gero, bere teorizazioa praktikan erakusten zuen: errimak egoki eta erraz eginak, *Hiztegi errimatua*-n irakatsi bezala. Berriztapen handia zekarkion bertsogintzari edozein aldetatik. Bertsogintzan ez da Txirrita, ironia ez du bere fuertea, baina bere alderdi bikainak baditu, euskara zoragarria, teknika zuzena eta ongi landua: badu berea. Maila bat jarri

du, bakarkako saioan batipat, ofizioetan eta ez hainbeste nabarmendu arren.

*Dorronsoro:* Doinu berriak aparte, neurri desberdinetan aisa moldatzea, bertsogintza luzearen dominioa, bapateko saioetan sekula erabili izan ez diren hemistikioak, zortzi/zazpi adibidez, eta horrelako mila gauza. Ikusten da gogoeta sakon bat egin dela bertsolaritzaren barrutik, bertsolari batek berak eginga, orain arteko Lekuonarenak, Onaindiarenak, Zavalarenak ez bezala. Amuriza, bera bertsolaria izanik, bere teorizazioaz praktikan baliatzen da.

*Lekuona:* Ez dago ahazterik Basarrik ere baduela bere teorizazioa, Xalbador-ek ere bai. Azkenean, prosara pasa direnean, denek egin dute teorizazio-moduren bat. Amurizak, ordea, badu maila zientifiko eta literario bat, besteek ez bezalakoa, eta beste modu batean elkartu ditu teorizazioa eta praktika.

*Dorronsoro:* Inoiz ez da mundu guztia guztiz gustura izaten eta esamesak orduan eta gero azaldu izan dira, 86ko txapelketan adibidez, Lizaso gazteak irabazi duenean, berriz ere bertsolaritza herritar jatorrak bertsogintza intelektualaren aurka irabazi balu bezala. Baina ikuspidetaz motzak ematen dute horiek.

*Lekuona:* Egia da, lehen ere esan dugu, Amurizak ez du erakutsi dohain apartik umorerako, ironiarako. Horretan beste batzuk gehiago dira; aipagarria Peñagarikano baten komizitatea. Amurizak bere modua du eta bere moduan ekarri duena hor geratuko da. Nik ez nuke planteatuko modu bat herritarra balitz bezala, eta bestea ez. Herritarra bertsogintza guztia da. Eta zaila izango da aurrerantzean bertso lirikoa edo dramatikoak Amurizaren moduan ez baina bestela egitea, denbora batean. Horrek ez du esan nahi, ofiziokoetan, eztabaida dialektikoan, beste edozein bertsolari abil hobe eta denik.

*Dorronsoro:* Nik uste dut oraindik azkar samar dela gauza hauek zer diren ikusi ahal izateko. 80ko bertsogintza berria oraindik bidea egiten ari da. Ez dago esaterik, 80an Amurizak joera bat ekarri du, 86an jadanik beste joera bat nagusitu da. Horrela izan denik behintzat ez da inondik sumatzen. Nik uste dut Amurizaren aportazioa 86ko bertsolaritza guztian nabaritu dela. Ez da lehen bezala. Gero, bertsolari bakoitza bakoitza da eta bere modua du. Beti hala izan da eta orain ere joera desberdinak daude, indar eta modu diferenteak, denen artean ari da orango bertsogintza bere forma propioa hartzen eta osatzen. Gaur oraindik ez dago baloratzerik azkenean zer aterako den. Bertsogintza bat zer den,

mementu bakoitzean, bertsolari guztiek egiten dute bakoitzak bere aportazioa. Amurizak egin duena eta egiten ari dena hor dago, eta besteek egiten dutena ere hortxe dago. Historia ez da bukatu eta distantzia gehiago behar da gaur-gaurkoa epaitzeko.

Transkribatzailea: Joxe Azurmendi

## 1. eranskina

### Epaimahaiaren erizpideak bertsoak neurtzeko

I. 1935 eta 1936ko Bertsolari Egunean epaimahaiak zituen arau guztiak hauexek izan ziren (Ik. *Bertsolari-Guduak 1935-1936*, "Euskaltzaleak", Donostia 1936, 31 or.):

#### *Bertso bakoitzari puntuak emateko era*

Oso txarrari .....	0
Txar-xamarrari .....	5
On-xamarrari .....	10
Onari .....	15
Oso onari .....	20

"Epaikari bakoitzak, onela, errez eman zezakeen bere iritzia eta guztiak batasunez, erabakia zuzen".

II. "Arrasateko Arauak": 1979an, Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrean, Seber Altuberen mendurrenekoan, Arrasaten, arauok finkatu ziren (Ik. *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa*, 1985, ziklostilean):

"Bertsolari Txapelketarako Euskaltzaindiak izendatua duen batzordea bildu da Arrasaten eta epai-mahaiak jarraitu beharrezko aburuak markatu ditu, oinarri hauetan:

- Gaia* - Gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu.
- Hizkuntza* - Esateko moduaren edertasuna.
- Egitura* - Saioaren sarrera, jarraipena eta bukaera.
- Neurriak eta puntuak* - Neurria musikaren arabera. Puntuetan, po-  
toez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zaio".

III. "Bertsolari Elkartearen Loiolako txostena", ondorengo hauxe da bere osoan emanda (Ik. BERTSOLARI-ELKARTEA: *Eztabaidarako dokumentua*, 1985):

*Bapateko bertsogintza neurtzeko legeak eta erizpideak.*

## OHARRAK

- Txosten hau abiapuntu baizik ez da, *Bertsolari Txapelketa Nagusia* egiten denerako; zein diren bapateko bertsogintzaren legeak argi eduki ditzagun.
- Txosten hau prestatzeko gogoan eduki ditugu, baita ere: "Epai-mahaiak jarraitu beharrezko aburuak", Euskaltzaindiak Arrasaten markatuak; "Bertsolari-Txapelketan epaimahaikoek erabil ditzaketen erizpideei buruzko aurreprojektua", J.R. Etxebarriak aurkeztua; eta Bertsolari Batzordeak Loiolan 1985eko Urrilaren 5ean ospaturiko batzarrean agertu ziren zenbait eritzi.

## 1. GAIA

*Legea*: emandako gaia zehatz erabili, eta asmamenez jantzi, aberastu eta girotu.

*Erizpideak*: Hauek ematen dira:

### 1.1. Gaia zehatz erabili

- Gauza positiboak:
  - Ofizioka denean:
    - Suertatu den papera ondo betetzea.
    - Lagunak esandakoari erantzutea.
    - Benetako elkarrizketa sortzea.
  - Bakarka denean:
    - Gaiari ondo lotzea.
- Gauza negatiboak:
  - Ofizioka denean, bertsolari bakoitza bere bidetik ibiltzea, aurrekoak esandakoarekin loturarik gabe.
  - Bakarka denean, emandako gaiari ihes egitea.

## 1.2. *Gaia aberastu eta girotu*

- Gauza positiboak:
  - Ideia interesgarri eta orijinalak.
  - Gauzak samur esatea.
  - Ideien argitasuna.
- Gauza negatiboak:
  - Topikoak erabiltzea.
  - Besteren testuak nork beretzak hartzea, tradiziozkoa ez denean.

## 2. HIZKERABIDEA

*Legea:* Jendaurrean erabiltzen den hizkera publikoa, bertsolarien esalditara errenditzen dena, goitasun poetikoa duena.

*Erizpideak:* Hauek ematen dira:

### 2.1. *Jendaurreko hizkera*

- Gauza positiboak:
  - Arau gramatikalak zaintzea.
  - Joskera egokia.
  - Lokalismoen gainetik dagoen hizkera.
- Gauza negatiboak:
  - Hutsegite gramatikal nabarmenegiak.
  - Joskera traketsa.
  - Lokalismo haundiegiak (laburpenetan batez ere).

### 2.2. *Bertsolarien esalditara errenditzen dena*

- Gauza positiboak:
  - Hizkera argia eta zorrotza.
  - Bertsolarien klitxeak nabari zaizkiona.
  - Esaldi jatorrak sortzeko gaitasuna duena.
- Gauza negatiboak:
  - Hizkera arrunta, solas-mailakoa.
  - Esaldi errenak, landu gabeak.
  - Gaiarekiko lotura ilun uzten duten esaldiak, hala-holako hizkerabideak.

### 2.3. *Goitasun poetikoa*

- Gauza positiboak:
  - Bakarka denean:
    - Nortasun poetiko bat azaltzea, bakoitzak berea: dramatizaziorako, umorerako, lirikarako, arrazoi-tarako.
    - Figura poetikoak sartzea: kontrasteak, ironia, metaforak, progresioak, aliterazioak, tradiziozko kli-txeen baliabide poetikoak.
- Gauza negatiboak:
  - Aipatu figurek ez erabiltzea.

## 3. METRIKA

*Legea:* Neurria doinuaren araberako izan dadila etenaldi eta silabetan; errimak hoskidetza aberatsekoak eta maila gramatikal desberdinekoak; eta estrofa ondo eraikia eta bere erritmoan emana.

*Erizpideak:* Gogoan hartzen direnak:

### 3.1. *Neurriak doinuaren araberakoak etenaldi eta silabetan*

- Gauza positiboak:
  - Txukun neurtzea, doinuarekin eta silabaka, etenak ondo zainduz.
  - Betegarri orijinalak erabiltzea (esaldi egokiak adibidez).
- Gauza negatiboak:
  - Etena ez zaintzea.
  - Lerro errenak.
  - Hitzen arteko loturak eta hitzen laburdurak.
  - Ezertara ez datozen hitz betegarriak erabiltzea.

### 3.2. *Errimak hoskidetza aberatsekoak eta maila gramatikal desberdinekoak*

- Gauza positiboak:
  - Errimen aberastasuna: atzizkien gain, 1, 2, 3, 4 grafemaz (letraz) hoskidetza egitea.

- Beste osagai fonikoak sartzea: aliterazioak, puntu magikoak.
- Errimazko hitzak maila gramatikal desberdinetakoak erabiltzea eta konbinazioak egitea.
- Gauza negatiboak:
  - Poto egitea. Errimari dagokion puntuazioan 0 edo 1 eman daiteke gehienez. Beste puntuazioak aparte doaz.
  - Oinetan atzizki beren errepikatzea erabiltzea. Alderdi hau ere metrika-gaian bakarrik izango da kontuan; eta ez dago estuegi hartzerik, tradizioan —hurbilekoan ere bai— bapateko bertsogintzan puntu hau nahiko garbi ez dagoenez.

### 3.3. *Estrofa ondo eraiki eta bere erritmoan ematea*

- Gauza positiboak:
  - Estrofari bere egitura eta biribiltasuna ematea.
  - Minutu laurdenaren barruan, gutxi-asko, (hau zehaztu daiteke), kantuari ekitea; eta hasitako erritmoan jarraitzea.
- Gauza negatiboak:
  - Estrofaren barruan hutsuneak nabarmentzea, bete-lanak, edota gauza trinkoegiak, nahasiegiak.
  - Kantari hasteko pasatzen duen denbora ez dadila luzee-gia izan.
  - Behin kantari hasiz gero, erritmoari eutsi, geldialdirik gabe.

## 4. SAIOAREN EGITURA

*Legea:* Estrofen bidez emango den gaia ordenu baten barruan antola dadila.

*Erizpidea:* Ohar hauek egiten dira:

### 4.1. *Ordenu baten barruan*

- Gauza positiboak:
  - Bakarka denean:
    - Saioak sarrera bat, jarraipena eta bukaera behar ditu.



- Saioak egitura desberdina eduki behar du, estrofa bat, nahiz bi, nahiz hiru eta abar dituenean.
- Saioan progresio bat nabarmentzea.
- Gauza negatiboak:
  - Bakarka denean:
    - Bi estrofatan gauza bera esatea.
    - Estrofak sobratuta betelana egin beharra egokitzea.
    - Saioak interesa galtzea, biztu beharrean motelduz.

## 5. LANGINTZA BAKOITZA NEURTZEKO BAREMOA

Lege eta erizpide horien arabera, bapateko bertsogintza neurtzeko, metodo praktikoen baten beharra ikusten da. Gure ustetan gutxi dago egonik teknika kontuan, eta, bestalde, ariaren-ariz zabaldu beharreko bidea dugula derizkiogu honi.

Hasteko, eta metodo praktikoa bat eratu aurretik, aurkeztu eta arakatu ditugun langintzen baremoa emango dugu. Abiapuntu da eztabaidarako; eta abiapuntu, agian, fitxa tekniko bat asmatzen hasteko.

Saioaren puntuaketa guzitarra 10 izanik, 3 puntu emango genioke gaiari, beste 3 hizkerabideari, beste 3 metrikari eta 1 egiturari.

Legeetatik, erizpide nagusienetatik eta baremotatik akordio zabala lortu ondoren, epai-mahaikoek asma eta egiazta dezakete bertsoen neurtzea azkar eta bateratu bat emateko sistema berriagoa.

Loiola, 1985, Urriak 21.

## 2. eranskina

**Bertso-paperen "Xenpelar Saria"ren irabazleak: izenak eta gaiak**

- 1962: Jesus Lete "Ibai-ertz", *Pepitari*.
- 1963: Gillermo Albizu, *Txerrikume bat*.
- 1964: Jose Maria Lertxundi "Argin", *Asto bati*.
- 1965: Manuel Matxain, *Salbatore Mitxelenari*.
- 1966: Inozenzio Olea, *Nere jaiotetxea*.
- 1967: Manuel Matxain, *Che Guevara*.
- 1968: Segundo Kalonge, *Bilintxi jarritako bertsoak*.
- 1969: Inozenzio Olea, *Holandako apaizak*.
- 1970: Jose Aierbe, *Minbizia*.
- 1971-1972: Fernando Aire "Xalbador", *Sortetxea*.
- 1973: Fernando Aire "Xalbador", *Gure artzain etxolari eta Mendian galdu direnei*.
- 1974: Jean Pierre Mendiboure, *Arrosako zubian eta Sentimentu batzuk*.
- 1975: Fernando Aire "Xalbador", *Ortzirale Saindu bateko gogoetak eta otoitza*.
- 1976: Fernando Aire "Xalbador", *Ene ama zenari*.
- 1977: Imanol Lazkano, *Ezkontzera doan dama bati*.
- 1978: Pello Esnal, *Soldadu ekarri naute*.

Irabazi dituzte: Fernando Aire "Xalbador"ek 4 aldiz lehen saria. Inozenzio Oleak 2 aldiz lehen saria eta 3 aldiz bigarrena. Manuel Matxainek 2 aldiz lehen saria eta 2 aldiz bigarrena. Ez dago lehen saria behin baino gehiagotan irabazi duen besterik; baina, behin irabazitako lehen sariaz gain, Jose Aierbek 3 aldiz irabazi du bigarrena eta Jesus Lete "Ibai-ertz"ek 2 aldiz. (Ik. LEKUONA, J.M., "Xenpelar Saria", in: "Bertso-Paperak" *Xenpelar Saria*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia 1985, 13-17 or.).

**LOS CAMINOS DEL BERTSOLARISMO MODERNO****LES CHEMINS DU BERTSOLARISME MODERNE**

*La presente entrevista, organizada por la revista y transcrita por Joxe Azurmendi, ofrece un repaso de la historia del bertsolarismo moderno, que va de la inmediata preguerra hasta nuestros días.*

*Es una conversación entre dos especialistas del tema, Joan Mari Lekuona y Joan Dorronsoro. Señalan los hitos más importantes de la época: 1935, 1960, 1968/1970, 1980, que coinciden con los campeonatos nacionales. En cada periodo se estudian los siguientes aspectos: la situación socio-cultural, los acontecimientos en el ámbito estrictamente bertsolari, las renovaciones técnicas y organizativas, los hombres y nombres más relevantes, etc.*

---

L'entretien qui nous occupe, organisé par la revue et transcrit par Joxe Azurmendi, présente une vue d'ensemble du bertsolarisme moderne, depuis l'après-guerre jusqu'à nos jours.

Cet entretien est une conversation entre deux spécialistes du sujet, Joan Mari Lekuona et Joan Dorronsoro. On y rapporte les jalons les plus importants de l'époque: 1935, 1960, 1968/1970, 1980, qui coïncident avec les championnats nationaux. On y étudie également les aspects suivants de chaque période: la situation socio-culturelle, les événements dans le cadre strict du bertsolarisme, les renouvellements techniques et d'organisation, les personnages et les noms les plus éminents, etc.